

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA, PROZEDURA IREKIA ERABILIZ KONTRATATZEKO. ESLEIPEN MODUA LEHIAKETA IZANGO DA.

Ludoteka Zerbitzua

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Baldintza orri hauen arabera egingo den kontratuaren helburua da, Ludoteka zerbitzua eskaintzea, kontratu izaera edukiko duen espedientean agertzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz.

2. GAUZATZEKO EPEA.

Kontratua gauzatzeko epea urtebetekoa izango da, kontratuaren jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa, BEZ barne, 28.200 eurokoa izango da; dena den lizitatzailerek kopurua hobetu ahal izango dute.

4. ORDAINTZEKO ERA

Hilez hil ordainduko da kontratuaren prezioa epemugan, zerbitzua abian jartzen denetik hasita. Dagozkion fakturak aurkeztu behar ditu kontratistak, eta gazte teknikariak egiaztatuko ditu, eta hala badagokio organo eskumendunak onartuko ditu.

Kontratistari entzun eta gero, kontratuaren helburua den zerbitzua ez emateari edo behar ez bezala egiteari edo izan litezkeen sartzioei dagozkien kopuruak murriztuko dira faktura horietatik.

5. PREZIOEN ERREBISIOA

Aurreko urte naturaleko Kontsumorako Prezioen Indizean oinarriturik gaurkotuko da adjudikazio prezioa; lizitatzaille bakoitzak, Espainiako estatistika erakundeak argitaratutako, Kontsumorako Prezioen Indizean oinarritutako, berriazko prezioen berrazterketa proposamena egingo du.

6. BERMEAK

Kontratuaren Adjudikazio-hartzaileak, hartutako betebeharrak betetzea garantizatzeko, adjudikazioaren prezioaren %5ari (BEZ gabe) dagozkion kopuruko behin betiko bermea ezarri beharko du.

Bermearen itzulketa, bai guztia edo zati batean, adierazi den Sektore Publikoko kontratuaren Legearen 90. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, beti ere berme epea bukatu eta esleipendunak kontratuaren ondoriozko obligazio guztiak bete baldin baditu.

7. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua, kontratistaren arrisku eta benturara egingo da.

Kontratua Plegu honetan agertzen diren klausulen arabera beteko da eta, bidezkoa balitz, espedienteari atxikita dauden zehaztapen teknikoak kontuan izaki, hauek interpretatzeko Administrazioak kontratistari ematen dizkion jarraibideak betez.

8. KONTRATISTAREN LAN-EGINKIZUNAK

Kontratista behartuta dago lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

9. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Esleipendunaren ardura da, kontratuaren gauzatzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz sortutako kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko kontratuen legearen 198. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritz.

10. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Udalak kontratua aldatzea izango du, behar berriak edo ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubidea izango, Sektore Publikoko kontratuen legearen 284.c) artikuluan zehaztutakoaren kaltetan gabe.

11. - BERMEALDIA

Kontratu-mota honen izaera dela eta, ez da berme-eperik jarri behar.

12. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOTIAK

Zerbitzuen Kontratua bertan behera uzbeko arrazoiak Sektore Publikoko kontratuen legearen 206 eta 284 artikuluetan ezarritakoak dira.

14. - ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioak kontratua interpretatu, sor daitezkeen arazoak konpondu eta arrazoi publikoengatik aldatzeko eskubideak izango ditu, baita bertan behera utzi eta bere ondorioak finkatzeko ere, beti ere Sektore Publikoko kontratuen Legearen mugen barnean eta bertan adierazitako betebeharrak eta ondorioak kontuan hartuz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA.

15. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena prozedura irekia erabiliz egingo da eta hainbat irizpide.

Esleipena egiteko, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

- Memoria 50 puntu
- Proposamen ekonomikoa 50 puntu.

16. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta ez badira sartzen Sektore Publikoko kontratuen legearen 49. artikuluan zehaztutako debekuetan.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Era berean pertsona juridiko baten izenean bere familiako bateren bat aurkeztuko balitz, horretarako behar diren ahalmenak dituela egiaztatzeko dagozkion agiriak aurkeztu beharko ditu. Kasu bietan ordezkariak Administrazioarekin kontratatzeke behar den gaitasuna izan beharko du.

Kontratuaren xedearekin erlazio zuzena duten jarduerak egitea izan beharko da lizitatzailleen helburua eta hori gauzatzeko, giza baliabideak eta beharrezkotzat jotzen diren baliabide materialak izan beharko dituzte.

17. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako leku, ordutegi eta epean aztertu ahal izango da: LEKUA: Aretxabaletako Udala. ORDUAK: 9:00-14:00 EPEA: Lan-egunetan, lehiaketa honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean kontatzen hasita eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak, aurretik adierazitako leku eta ordutegian aurkeztuko dira hamabost eguneko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Beranduago aurkeztutako proposamenak ez dira onartuko, Postan epea amaitu aurretik aurkeztu zirela jasota geratu arren, postaz bidali den egun berean eskaera bidali den dataren justifikazioa telex edo telegrama bidez Kontratazio Mahaiari bidaltzen zaionean izan ezik.

Lizitatzailerek bi kartazal itxi aurkeztu beharko dituzte (A eta B) eta horietako bakoitzean ondorengo testua ageriko da: "LUDOTEKA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Kartazal bakoitzean enpresa edo elkartearen izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak adieraziko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalak izenpetuta egongo dira.

"A" kartazalaren azpititulua hauxe izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Lehiatzaileak bere izenean badihardu: nortasun-agiria. Beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu: askietsi eta legeztatutako ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa bada: eratze- edo aldaketa-eskitura, merkataritza-erregistroko idazpenaren arabera, eta identifikazio fiskalaren zenbakia, inskribapena aplikaziozkoa zaion merkataritza legeriarekin bat etorri eskatu ahal denean. Horrela izango ez balitz, bere jarduera arautzen duten arauak jasoko dituzten, eta bakoitzari dagokion Erregistro ofizialean inskribatuak egon beharko diren, estatutu edo fundazio-egintza, eskitura nahiz eraketa edo aldaketa agiriren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna. d) Atzerriko enpresari kasuan, Europar Batasuneko Estatuetakoa direnean, erregistro profesional edo merkataritzako batean izena emanda dagoela kreditatuko du, Estatuaren legeriak eskatzen duenean baldintza hori.

c) Zinpeko berariazko aitortpena, Sektore Publikoko kontratuen legearen 49. artikuluan kontratatzeke zehaztutako debekurik ez daukala agertuz, eta zehazki indarrean dauden xedapenek xedatutako Zerga-betebeharrak eta Gizarte-Segurantzarekikoak kitatuta dauzkala egiaztatzea dagozkion erakundeen egiaztagirien bitartez.

d) Kontratuaren helburuari dagokion epigrafean, JEZ altan dagoela eta zerga horren azken errezioba ordainduta duela frogatzea.

e) Lizitzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta balio tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Sektore Publikoko kontratuen legearen 64 eta 67 artikuluetan zehaztutako edozein bide erabili ahal izango du. Lizitzaileek justifikatu egin beharko dute, kontratua behar bezala gauzatzeko giza baliabideak eta bitarteko materialak dituztela.

"B" kartazalean azpitulua hauxe izango da: "DIRU-PROPOSAMENA , ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK ETA MEMORIA". Hona hemen "B" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Hurrengo ereduaren arabeko proposamen ekonomikoa:

IZEN ABIZENAK.....
HERRIA.....
PK
NANTelefonoa.....

Ordezariaren datuak (ordezkaririk egonez gero)

IZEN ABIZENAK.....

Helbidea:

Posta-kodea: Telefonoa: Nortasun-agiria edo IFK (persona juridikoa bada):
..... kontratatzeko deitu duen
lehiaketaz jakitun izanik, zera adierazten dut:

1) Hitz ematen dut kontratua euroko prezioan, burutuko dudala; horietatik euro BEZ i dagokiona da; eta prezio horretan zerbitzuari dagozkion zerga, gastu, tasa eta fiskal erako arbitrio guztiak barne daudela, baita enpresariaren onura industrialia ere.

2) Administrazio-baldintza zehatzen agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, nire gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik. 3.) Irekiera, instalazioa eta funtzionamendurako nire enpresak betebeharrak eta baldintza guztiak egungo legediaren arabera betetzen dituela.

3) Irekiera, instalazioa eta funtzionamendurako nire enpresak betebeharrak eta baldintza guztiak egungo legediaren arabera betetzen dituela .

-(e)n(e)ko.....ren (e)an

Sinadura.

b.- Memoria.

Lizitzaileak erabakiko du, eskatutako dokumentazioa aurkezterakoan, jatorrizko dokumentazioa aurkezten duen edo haren kopia bat; kopiaren kasuan Administrazio kontratu egileak edo Notarioak konpulsatua egon beharko da.

18. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A") kartazala sailkatuko du, eta, dokumentazio horretan akats materialak sumatuz gero, hiru laneguneko epea emango dio lehiatzaileari akatsa zuzen dezan.

Mahaia honela osatuko da:

Presidentea: Inaxio Garro Iturrospe.

Bokalak: Jose Angel Antxia Bolinaga.
Araceli Herran Montoya
Fco. Javier Mendizabal Garate
Juan Antonio Martinez de Aguirre Etxabe

Idazkariak: Mainer Etxaniz Belategi.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala) jendaurrean irekiko dira proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo astelehenean arratsaldeko 15:00etan, postaz bidalitako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, Estatuko Kontratazio-Erregelamendu Orokorrean zehaztutakoa beteko da.

Ondoren eta beharrezko txosten teknikoak eskatu eta aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak dagokion esleipen proposamena igorriko dio Kontratazioa Organoari esleipena egin dezan.

19. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Hilabete bateko apean adjudikatuko da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Behin behineko adjudikazioaren berri emango diote adjudikaziodunari, eta hark, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hamabost egun baliodunetan, honako hauek egin beharko ditu:

a) Behin betiko bermea jarri eta, hala badagokio, berme osagarria.

b) Zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzako obligazioak egunean dituela kreditatzen duten agiriak ekarri.

Behin-behineko adjudikazio behin betiko egiten ez zaionean, hark ez dituelako bete hartarako beharrezkoak dituen baldintzak, beste deialdi bat egin baino lehen, Administrazioak behin-behineko adjudikazioa berria egin ahal izango dio/e lizitatzaileri edo haren ondorengo lizitatzaileri, haien eskaintzak sailkaturik geratu diren ordenan, betiere posible izanez gero eta adjudikaziodun berriak ados dagoela esan badu, eta hala denean 10 egun baliodunek epea emango zaion hari, lehen adierazitakoa betetzeko.

Kontratazio organo aginpendunak behin betiko izaera adjudikatuz hobetuko da kontratua.

Azkenik, Administrazio honetan agertu behar da adjudikazioduna, behin betiko adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo hamar egun baliodunetan, administrazio agirian kontratua sinatzeko.

Kontratatari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua sinatu ezean, Administrazioak kontratua bertan behera uztea erabaki dezake, aurrez interesdunarekin hitz egin ondoren eta kalte-galerak ordainduz.

III.- IZAERA, ERREJIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA.

20. IZAERA ETA ERREJIMEN JURIDIKOA

Plegu edo orri hauen arabera egindako kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta bere gauzatze, esleipen, ondorio eta iraungitzeari dagokionez Pleguetan ezarritakoak arautuko du eta kontratuan bertan zehaztu ez den guztiari dagokionez, ondoko arautegia aplikatuko da: Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legea, besteen artean aipatutako Legea aldatzen duen abuztuaren 5eko 34/2010 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati batean garatzen duen, maiatzaren 8ko 81/2009 Erret Dekretua, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen, urriaren 12ko 1098/2001 Erret Dekretua, 30/2007 Legearen kontra egiten ez duen guztian, eta indarrean badago 817/2009 ED indarrean sartu ondoren; osagarri gisa, zuzenbide administrazioko gainontzeko arauak aplikatuko dira eta haiek ezean pribatuko arauak.

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioko auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira, Sektore Publikoko kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

21. JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioko auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitraiaren bitartez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritz.

Aretxabaletan, 2010eko ren(e)an.

LUDOTEKA ZERBITZUA ADJUDIKATZEKO, LEHIAKETA IREKIA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

I. TITULUA. KONTRATUARI BURUZ ORO HAR.

1.- Helburua. Baldintza pleguen helburu orokorra.

Plegu honen helburua hau da: Aretxabaletako Udalerrian, Ludotekaren zerbitzua adjudikatzeke baldintza teknikoak arautzea.

2.- Zerbitzuaren hartzailea.

, Ludoteka Aretxabaletako 3 eta 12 urte bitarteko haur guztientzat egongo da zabalik.

3.- Zerbitzuaren helburuak.

Helburu orokorra:

Aretxabaletako haur eta aurrenerabeei zuzenduta dago ludoteka. (3-12 urte bitartekoak) Zerbitzuaren helburu nagusia hezitzailea izatea da, hau da, haur hauen oreka pertsonala eta integrazioa lantzea, baloreen heziketan indartzea eta sormen nahiz ekimen pertsonalari bidea ematea. Helburu horiek lortzeko bitartekoa jolasa izango da, eta landuko diren programak, informazioa, aisi hezitzailea eta sustapena izango dira.

Helburu zehatzak:

- Baloreak lantzea: elkarbizitza, errespetua, elkartasuna, berdintasuna. Ekintza programatu eta ez programatuaren bitartez.
- Harreman sozialak lantzea: haurrek sozializatzen ikastea, euren artean jolasten edo heldu batekin jolasten, gauzak konpartitzen.
- Motibazioa eta sormena: haurren interesa hartuko da abiapuntutzat motibazioa sustatzeko eta beren gaitasun pertsonalak bultzatzeko.
- Haurren autonomia errespetatu eta sustatzea. Zenbait jardueren inguruan kritikotasuna bultzatuko da, zerbait gaizki egiten dutenean... .
- Integrazioa: edozein zailtasun dituzten haurrentzako normalizatzeko laguntza
- Algara ludoteka herrian eragile izatea, herrirako ekintzak antolatzea.

II. TITULUA. ZERBITZUAREN KUDEAKETA

1. Zerbitzuaren ezaugarriak

Ludoteka barruan 2 programa egongo dira. Lehenbizikoa asteleheneretik ostiralera izango da, arratsaldeko 17:00etik-20:00ra edo 16:30tik 19:30era.

Gabonetako oporretan ere, zerbitzua batez ere goizez emango da edo egun guztiko ekintza bereziak izango dira. Guzti hauek urtero Gabonetako egutegiaren arabera adostuko dira ludoteka zerbitzu eta Udalaren artean, herrian egon daitezkeen beste zerbitzu edo gabon eskaintzen osagarri izan daitezen.

Bigarren programa, 8-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo da. Igande arratsaldetan zabalduko da, arratsaldeko 17:00tik-19:30era, urtean lau hilabetetan zehar, hau da, abendutik –martxora arte, azken hau barne.

1.1. Adjudikazio-hartzailearen betebeharrak

Udalak berea duen ludoteka proiektuan finkatutako zerbitzua kudeatzea, beti ere udalaren irizpideak edo markatutako helburuak jarraituta.

1. Zerbitzua estaliko duen Aseguru Zibila izatea.
2. Hezitzaileak kontratu eta gizarte segurantzana alta ematea.
3. Garatu beharreko programak eta jarduerak planifikatu eta gazteria zerbitzuan aurkeztu, aurreko hilabetearen 15erako.
4. Egin beharreko erosketak eta jarduerak antolatzeke gazteria zerbitzuan eskaera egin eta onespena jaso ondoren erosi.
5. Bazkidetza kanpainan zabalpen lanak egin.
6. Ate irekien kanpaina prestatu (gurasoentzako, bazkide berrientzako...) eta gazteria zerbitzuan aurkeztu oniritzia jasotzeko.
- 7.- Izen-emate prozesua gauzatu.
- 8- Ludotekaren espazioaren banaketa eta erabilera diseinatu.
- 9- Herriko beste eragile eta zerbitzuekin koordinatzea: ikastetxeekin, herriko elkarteekin, herriko udal zerbitzu eta ekipamenduekin...
10. Adinari egokitutako metodologi ezberdinekin funtzionatu: haurrak eta aurrenerabeak. Denbora eta edukietan desberdinduko diren dinamikak garatu.
11. Ludotekako kanpo ekintzak antolatu. Haur guztiei zuzendutako ekintzak, bazkide direnei eta ez direnei. Haur eta gurasoei zuzendutako ekintzak, bazkide direnei eta ez direnei.
12. Jostailu mailegutza zerbitzua prestatu, antolatu eta eskaini.
13. Ebaluazio txostenak aurkeztu. Adjudikazio-hartzaileak urtero honako txostenak aurkeztu beharko ditu:
 - Urte bakoitzeko uztailen urtarilla-ekaina bitarteko Ebaluazio Txostena.
 - Urtarrilean aurreko urteko iraila-abendua bitarteko Ebaluazio Txostena. Hobetze proposamena.

1.2. Udalaren betebeharrak

1. **Udalaren ardura nagusia izango da ematen den zerbitzua kalitatezkoa dela ziurtatzea. Horretarako, zeregin hauek beteko ditu: zerbitzuaren irizpideak finkatu, koordinazioaren gaineko ardura bere gain hartu ludotekaren beharrei erantzun asmoz, zerbitzuaren ebaluazioaren gaineko ardura eskatu, ekipamendu horren mantenimendua ordaindu, eta zerbitzua finantziatu.**

2. Koordinazioaz arduratzea. Ludotekaren inguruan koordinazioa 3 mailatan emango da.

Barneko koordinazioa hezitzaileen artean emango da. Udal ludotekaren helburuak landuko dituen taldea izango da aurrera eramango duena. Hilabete bakoitzeko 15erako hurrengo hilabeterako egongo den programazio orokorra gazteria zerbitzuan aurkeztu beharko du.

Udala eta hezitzaileen arteko koordinazioa. Gazteria teknikaria izango da koordinazio hori aurrera eramateaz arduratuko dena. Bertan planifikazioa eta ebaluazio iraunkorrak egingo dira, zailtasunak identifikatu eta erantzunak emateko bideak aztertuko dira. Programazioa aurrera eramateko beharrezko materiala eta erosketak proposatu eta udalaren oniritzia jaso ondoren erosiko dute.

Horretaz gain, programazioak edo helburuak aurrera eramateko hezitzaileak beste udal zerbitzuekin koordinatu ahalko dira, hala nola: liburutegia, kiroldegia, errefortsu programak... Edo herriko beste eragileekin ere harremana sustatuko da (ikastetxeekin, herriko elkarteekin, ...). Horren guztiaren jakinarean

ganean egon beharko da Gazteria zerbitzua eta beharrezkoa denean gazteria teknikariarekin batera joango dira hezitzaileak.

3. Ebaluazio sistemak. Gazteria teknikariak egingo ditu ebaluatzeko gidoi desberdinak, hezitzaileek ebaluazioa nola egin jakin dezaten.

- Zerbitzua erabiltzaileen beharretara zuzenduta dagoen: jostailu motak, guneak, aktibitateak ordutegia, ...
- Helburu operatiboen betetze maila.
- Haurren garapena: banakako eta taldekoa. Haurren jolasaren garapena.
- Hezitzaileen esku-hartzearen egokitasuna.
- Zerbitzuaren onarpena erabiltzaileen aldetik.
- Finkatutako arauen betetze maila.
- Ekintzak garatzeko zailtasunak eta lorpenak.
- Ekintza bereziak
- Aurreenerabeen programaren gaineko ebaluazioa.

4. Udala ludotekako mantenimendu gastuez arduratuko da.

5. Udalak ordainduko ditu ekintzak aurrera eramateko beharrezkoak diren materialak. Horretarako aurrekontua izango du.

6. Iganetako jarduera berezietarako aurrekontua izatea.

2.-Egutegia

Udal Aisialdi Zerbitzua 3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa izango da eta honako epeetan eta lekuetan garatuko da:

- Algora ludoteka irailaren erditik ekainaren bukaerara, astelehenetik ostirala bitarte egongo da zabalik. Astegunetan egunean hiru orduz arratsalde. Gabonetako oporraldietan ere (jaiegun ofizialetan salbu) goiz edo arratsalde egongo da zabalik, adosten den programazioaren arabera.
- 8-11 urte bitartekoen programa berezia, abendua, urtarrila, otsaila eta martxoak hilabetetako astebukaeretan eramango da aurrera. 2011 urtean, esaterako, urtarrilaren 9an hasi eta martxoaren 27an amaituko da. Aste Santuko oporren aurretiko astelehen eta asteartean zabalik egongo da, eta ekintza bereziak egingo dira. Gabonetako oporretan; hau da, abenduaren 26, 27,28,29,30ean zabalik egongo da eta ekintza bereziak antolatuko dira. 2012ko urtarrilaren 2,3, 4ean bezala. Baliteke, ekintza hauek bertan behera geratzea bestelako ikuskizun berezirik antolatzen bada.

III. TITULUA

Giza Baliabideak

1. Ludoteka zerbitzua

1. Ludoteka zerbitzurako 2 hezitzaile izango dira beharrezkoak. Batek, hezitzaile koordinatzaile funtzioa izango du eta hau izango da nagusiki udaleko gazteria zerbitzuarekin, gainontzeko teknikari eta herriko eragileekin harremanetan egongo dena. Horretarako, besteak beste, egunero ordubeteko dedikazioa aurreikusten da. Txostenak egiteaz arduratuko da, baita inbentarioak egiteaz ere eta erosketak egiteaz eta programazioa egiteaz, besteak beste.
2. Bigarren hezitzaileak, hezitzaile koordinatzaileari lagunduko dio, programazioa planifikatzerako orduan, programazio edo ekintza bereziak antolatzerako orduan eta udalarekin koordinatzerako orduan, besteak beste.
3. Hezitzaile laguntzaileak. Ekintza bereziak egiten direnean eta ludotekan begirale gehiago behar direnean, zerbitzu emale enpresa edo elkarteak begirale hauek ere hartu beharko ditu.

Ludoteka Zerbitzua: Ludotekarako kontratatuko diren hezitzaileek honako baldintzak bete behar dute:

- a. Hezitzaileek xedearen antzeko lanetako eskarmentua izatea.

- b. Hezitzaileen titulazioa gutxienez **Diplomatura edo baliokidea** izango da. Hobetsiko da Gizarte Hezkuntza, Gizarte Lan edo Irakasle diplomatura edukitzea.
- c. Hezitzaileek EGA titulua edo baliokideren bat edukitzea

Kontratua indarrean den bitartean zerbitzua eskaintzeko bestelako pertsonala kontratatu beharra sor daiteke. Pertsonal hori hezitzaileen figura ordezkatzeko erabiltzen denean, kontratatutakoak titularren lan baldintza berberak izan beharko ditu.

4. Aurrenerabeei zuzendutako zerbitzua

- 1. 2 begirale izango ditu zerbitzu honek.

Baldintzak: begirale izaera edukitzea. Eskarmentua edo ikasketak izatea.

Funtzioak:

- 1. Programazioa egitea. Beharrezkoa duten materiala erosteko ludotekako hezitzaile koordinatzaileari eskatzea.
- 2. Zabalpena egitea ikastetxeetan. Programaren hasiera datetan.
- 3. Ebaluazio txostenak egitea. Zenbait kasutan ekintza batzuk programatu beharko dituzte.
- 4. Bestelakoak.